



Erabakia, 2019ko maiatzaren 20koa, Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordearena, UPV/EHUen euskaraz irakasteko hizkuntza-gaitasuna egiaztatzeko probetan izena emateko epea maiatzaren 24ra luzatzeko.

Errektoreorde honen 2019ko maiatzaren 20ko erabaki honen bidez, UPV/EHUko Euskara Probetan izena emateko epea luzatzen da: **2019ko maiatzaren 6tik maiatzaren 24ra** izango da aukera probetan izena emateko.

Euskara Probak, 2019ko maiatzaren 31n (idatzia) eta ekainaren 4an (ahozkoa) egingo dira. Proba hauen arautegia (Euskal Herriko Unibertsitatean Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiria eskuratzeko Arautegia), eta proba-eredua nahiz zuzenketa-irizpideak jasotzen dituen Proben Batzordearen Akta Interneteko helbide honetan daude eskuragarri: <http://www.ehu.eus/euskara> (Azterketak / Euskara probak azpiatalean). Euskararen arloko Errektoreordetzaren, Gipuzkoako Campusaren eta Arabako Campusaren iragarki-tauletan ere kontsultatu daiteke.

Proba hauetan parte hartzeko eskariak aurkeztean, interesatuak dokumentu hauek ekarri beharko ditu: nortasun agiri nazionalaren kopia, unibertsitate-tituluaren fotokopia eta probaren tasak (15 euro) ordaindu izanaren agiria.

Ordainketa kontu honetan egingo da: Kutxabank (UPV/EHU - Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetza) 2095 0292 91 3239001792.

Eskariak, erabaki bezala, **maiatzaren 6tik 24ra** (biak barne) aurkeztu beharko dira Euskal Herriko Unibertsitateko erregistroetan, hain zuzen ere UPV/EHUren 2001eko martxoaren 19ko erabakian zehaztutako bulegoetan (ikus http://www.ehu.es/oficinas_registro.html).

Erabaki dut:

UPV/EHUko Euskara Probetan izena emateko epea maiatzaren 24ra luzatzea.

Leioan, 2019ko maiatzaren 20an.




Jon Zarate Sesma
UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren
arloko errektoreordea

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
REGISTRO DE RESOLUCIONES
ERABAKIEN ERREGISTROA
Resol. nº 1953/2019 Erabaki Zk